

«Agenda politiko eta sozialean eragiteko» hitzorduak izango ditu pentsiodunen borrokak udaberrian

gedar

«AGENDA POLITIKO ETA SOZIALEAN ERAGITEKO» HITZORDUAK IZANGO DITU PENTSIODUNEN BORROKAK UDABERRIAN


2019ko apirilaren 02(e)an

Gasteizen izan duten hitzorduan, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako pentsionisten mugimenduaren ordezkariak mobilizazioak deitu dituzte apirilaren 13 eta maiatzaren 11.ean. Mobilizazioak lau lurraldeetako hiriburuetan izango dira eta «agenda politikoan eragitea» dute helburu, hauteskunde testuingurua baliatuta

Borroka egunak baina, agenda sozialean ere eragin nahi du, «gizarte osoari eragiten dion» aferara delako jakitun, aldarriak «hauteskunderen haratagoko eragina» izatea nahi dute. Hala, hilabete luzeetako borrokari jarraipena emateaz gain, «gizarte osoak esku har dezan» eskatu dute.






INSTITUZIOAK ENTZUNGOR ALDARRIKAPENEN AURREAN

Era berean, deitzaileek Eusko Jaurlaritzaren borondate falta salatzen dute. Izan ere, pasaden astean Gizarte eta Enplegu Sailburuarekin izandako bileratik «ezer positiboa» atera ez izana azpimarratu dute; Beatriz Artolazabal sailburuaren konpromiso falta mahai gainean jarri nahi izan dute. Pentsiodunek, besteak beste, 1080€ko pentsio minimoa, 1200€ko gutxieneko soldata, Pentsio Sistema Publikoa, pentsioen erreformen deuseztatzea eta aurrejubilatzeen gaineko penalizaziorik ez izatea eskatu dizkiote Sailburuari.

 Permalink:
(QR code, URL corta, URL)



<https://wp.me/paElvn-qcN>
<https://boltxe.eus/?p=100737>

 <https://www.boltxe.eus>
 boltxe@boltxe.eus
 <https://www.boltxe.eus/denda>
(Boltxe Liburuak)
 <https://twitter.com/boltxe>
 <https://fb.me/boltxe.kolektiboa/>